

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresan bezeroek nahi dituzten irudi, testu edo diseinu pertsonalizatuak edozein euskarritan inprimatzeko aukera eskaintzen dugu. KAMISSETAK, TAZAK, PUSKA DEKORATIBOAK zein objektu praktikoak: denak pertsonalizatu daitezke bezeroak eskatzen duen moduan.

Gure helburua da bezero bakoitzak nahi duen harira egokitutako produktu bakarrak sortzea, bai opari berezi bat egiteko, bai norberak bere gauzak apaintzeko edo nortasuna adierazteko.

Zerbitzu arin eta malgua eskaintzen dugu, eta bezeroak erabakitzen du nola izan behar duen bere produktuak: koloreak, irudiak, testuak eta diseinuak berak aukeratzen ditu. Horri esker, gure produktuak ezin hobeak dira urtebetetzeetarako, ezkontzetarako, taldearentzako material pertsonalizaturako, enpresentzako merchandisingerako edo eguneroko objektu bereziak sortzeko.

Laburbilduz, gure zerbitzuarekin edozer objektu bihur daiteke pertsonalizatutako pieza bakarra, bezeroaren sormenari eta beharrei erantzunez.